

Balorezko proposamena better call txorz

Zein behar asetzen ditugu?

Egunero munduan krimen asko gertatzen dira, eta krimen horiek egiten dituzten pertsonak askotan harrapatutak izaten dira edo harrapatutak izateko beldurra daukate, eta askotan bestelako zerbitzuak behar dituzte beraien egunerokotasunean, adibidez garraioa edo beste enpresa batekin mediatzea.

Jarduera nagusia komplementatzen

Hori dela eta, Sozietate honen izena Breaking bad izeneko serie batean inspiratu da, izan ere, bertan protagonisten abokatua saul zen, eta berak laguntza juridikoa eskeintzeaz gain beste zerbitzu batzuk eskeintzen zituen. Hortaz, gure enpresaren jarduera nagusia laguntza juridikoa eskeintzea izango da. Baina askotan gure bezeroek beste behar batzuk izango dituzte laguntza juridikoaz gain, hori dela eta, gure enpresak beste hainbat zerbitzu eskeintzeko prest egongo da, beste abokatu buffete ez bezala.

Bestelako zerbitzuak (Balore proposamena)

Esan bezala, bestelako zerbitzuak eskeiniko dizkiegu gure bezeroei, hona hemen horien azalpena:

-Garraioa: Askotan gure bezeroek presa izango dute toki batetik bestera joateko hainbat arrazoiengatik, eta guk subkontratutako enpresa baten bidez garraioa eskeiniko diegu.

-Kontaktuak: Gure enpresaren izaeraren ondorioz kontaktu asko izango ditugu, eta gure bezeroei kontaktu horiek eskeiniko dizliegu.

-Ikertzaile pribatuak: Askotan gure bezeroek beste pertsona edota enpresei buruzko informazioa beharko dute, hori dela eta guk ikertzaile pribatuekin kontaktuan jarriko diegu.

-Segurtasuna: Baliteke gure bezeroek babesa behar izatea, horretarako sekuritate enpresa bat subkontratatuko dugu.